

## Segmentazioa

Gure merkatua batez ere nitxo-merkatua izango da zeren eta bezero oso zehatzak eta bereiztuak izango dira gureak, segmentu zehatz bat jarraituko dugu bezero multzoa. Gure bezeroak betaurrekoak erabiltzen dituen jendea



da, baina, jende horren artean behar asko eta oso desberdinak daude. Esate baterako Covid egoerarako egin ditugun betaurrekoak musukoarekin oso erakargarriak izan daitezke osasun arloan lan egiten duen jendearentzako. Gure betaurreko inteligenteak oso erabilgarriak izan daitezke ikusmen ezgaitasun bat dutenentzat. Egia da nitxo hauek oso desberdinak direla baina gure enpresa beste ikuspuntu batetik ikusten badugu merkatu masiboan gaudela esan ahal dezakegu. Esate baterako, betaurrekoak musukoarekin edozein bezerok erosi ditzake bere eguneroko bizitzarako eta betaurreko inteligenteak edozein pertsonarentzako erabilgarriak izan daitezke, ikasteko, lan egiteko edo bizitzako arlo batzuk errazagoak izateko.